

Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkartearen lan-aholkularitza zerbitzuak honakoetan oinarriturik daude, batez ere:

- ✓ Afiliazio izapideak, langileen altak eta bajak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean.
- ✓ Edozein lan kontratu motaren azalpena eta bideratze. Iraupen jakineko kontratuen kasuan mugaeguna zaindu eta haren berri eman, luzatzeko edo eten egingo dela jakinarazteko.
- ✓ Hileroko soldataren eta aparteko soldaten ordainagiriak prestatu. Hala nola, kitapen agirien prestaketa. Agiri hauek posta elektronikoaren bidez bidaliko dira.
- ✓ Gizarte Segurantzaren hileroko likidazioak prestatu eta ordaintzeko aurkeztu.
- ✓ Lan-hitzarmenak eskatzen duenean, GEROAren hileroko ekarpenak prestatu eta ordaintzeko aurkeztu.
- ✓ PFEZren hiruhileko aitopenak prestatu eta aurkeztu (110 eredua), bai eta urteko laburpena ere (190 eredua). Langileei bidali behar zaien 10-T ziurtagiriak prestatu.
- ✓ Alta eta baja emateko parteak aurkeztu behar den lekuan, bai gaixotasun arruntak eragindako aldi baterako ezintasunen kasuan, bai lan istripuen kasuan.
- ✓ Lan kontratuak amaitzean, behin-behineko langileen langabezi espedienteak prestatu.

Gizarte Segurantza, INEM eta Foru Ogasuneko bideratze hauek internet bitartez egiteko ordezkartza emango dio AFEDEGIri.

Sinatuko den zerbitzu kontratua bi aldeetakoren batek berariaz uko egin arte indarrean izango da, betiere ordainketak aurrez ezarritako epeetan gauzatzen badira.

AFEDEGIk emandako zerbitzuaren aurrekontua, interesdunaren kontratazio tamainaren eta ezaugarrien arabera egingo da. AFEDEGIk eskubidea izango du kontratuaren zenbatekoa urtero berrikusteko, eta aldez aurretik jakinarazi beharko du aldaketarik izanez gero. Dagozkion zenbatekoak hiru hilez behin kargatuko dira elkarteak emandako kontuan.

AFEDEGIk lan istripuetarako eta lanbide gaixotasunetarako hitzartu duen Mutualitatea "MC MUTUAL" da. Era berean, MC-PREVENCIÓN erakundeak AFEDEGIri Prebentzio Teknikoa eta Osasun Zainketa eramateko aurkeztutako zerbitzu-eskaintza zabaltzen dio interesdunari. Informazio gehiago nahiez gero sartu www.mc-mutual.com orrialdean.

Bai langileen datuak, bai elkartearenak, zehaztutako mantenua eta kudeaketa zerbitzuak ematearren, Federazioen Elkarteak sortutako fitxategi automatizatueta sartuko dira, eta Norberaren Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera baliatuko dira.